



12.05.30AN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

*Lierni Altuna Ugarte andrea
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea
Andoni Solupe Amozarrain*

José Ramón Uribe Uriarte jauna

Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

EZ BERTARATUAK:

*Ramón Ajuria Uranga
Idoia Beitia Izurategi andrea
Martín Damián Echave Echevarría jauna*

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko maiatzaren 30ean, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Lierni Altuna jarduneko alkatearen lehendakaritzapean eta Itxaso Trigueros idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

1.- 12.04.25EKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2012ko apirilaren 25ean Udalbatzak eginiko bilkuraren aktaren zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du jarduneko alkate andreak.

Inork ez duenez okerrik aipatu, Aramaio Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaraturako zinegotzi guztien adostasunarekin (6 aldeko boto), ondorengo ERABAKI DU:

2012ko apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta onartzea.

OGASUNA

2. 2011-2014 EPEALDIRAKO UDALAREN PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Ogasuna batzordeak hurrengo irizpena igorri du:

2012ko martxoaren 28an, 42/12 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bidez, 2011ko udal aurrekontuaren likidazioa onartu zen. Kontu-hartzaileak egindako txostenean jaso den moduan, 2011ko likidazioak ez du aurrekontu-egonkortasunerako helburua betetzen. Ezegonkortasun hori zuzentze aldera, aurrekontu-egonkortasuna eta jasangarritasun-



finantzarioa arautzen duen legediak (2/2012 Lege Organikoa; aurretik 2/2007 Testu Bateratua) eskatzen duen Plan Ekonomiko – Finantzarioa osatu du.

Osatutako Plan Ekonomiko-Finantzariora ikusita.

Kontu-hartzailearen txostena ikusita.

Ogasuna Batzordeak, bertaratutako kide guztien adostasunarekin (gehiengo absolutua) ondorengo ERABAKIA hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

Lehenena.- 2011ko udal aurrekontuaren likidazioa dela eta, kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasunaren helburuaren gaineko azterketaren emaitzaren jakinean geratzea.

Bigarrena. 2011-2014 epealdirako Aramaioko Udaleko Plan Ekonomiko-Finantzariora onartzea, erantsitako dokumentuan jasotako zehaztapenekin, erabaki hau osatzen dutena.

Hirugarrena. Informazio xedeetarako, onartutako Plan Ekonomiko Finantzarioa ALHAOn argitaratuko da. Era berean, Planaren ale bat publikoaren eskura egongo da, onartzen denetik iraunaldia bukatu arte.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiari erabaki honen berri emango zaio, Planaren ale bat bidaliz.

Jarduneko Alkateak, Batzordeak onetsitako Planaren lerro nagusiak azaldu ditu, aurreko bertsioekin izandako aldaketak azpimarratuz, batez ere FOFELeko aurreikuspenen jaitsiera.

Honen inguruan Nafarrate jaunak FOFELari buruz esan du 2012ko aurreikuspenak jada gehizkoak direla, aurreikuspena ez dela positiboa azken emaitzen arabera. Zifra horiek errebisatu beharko direla ohartu du.

Jarraian, bozketari ekin zaio hurrengo emaitzarekin: 5 Aldeko boto eta kontrato boto 1 (EAJ/PNV udal taldeko zinegotziarena).

Beraz, Aramaioko Udalbatzak, Ogasuna Batzordearen irizpenarekin bat etorritik, gehiengo absolutuz ondorengo ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2011ko udal aurrekontuaren likidazioa dela eta, kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasunaren helburuaren gaineko azterketaren emaitzaren jakinean geratzea.

Bigarrena.- 2011-2014 epealdirako Aramaioko Udaleko Plan Ekonomiko-Finantzariora onartzea:

PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA
2011-2014
ARAMAIOKO UDALA
(Aurrekontu Egonkortasuna)



PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA, azaroaren 2ko 1463/2003 Errege Dekretuaren 20. artikulua arabera.

Egonkortasun Planak elementu hauek hartu beharko ditu bere baitan:

a) Erregelamendu honen 2. artikuluan aipatzen den mendeko entitateen zerrenda, berariaz aipatuta haien forma juridikoa, partaidetza osoa edo partziala, zuzena edo zeharkakoa, bai eta haietako bakoitzak Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Sistema Europarraren arabera duen mugapen sektoriala ere.

b) Organo aginpidedunak emandako egonkortasun helburua betetzen ez dela dioen ebaluazio txostena, erregelamendu honen 16. Artikuluan jasotakoa, 2012ko martxoaren 28an udalaren kontu-hartzailtzak egindakoa.

c) Aurrekontuko diru sarreraren eta gastuen gaineko informazioa, kapituluka, edo, kasuan kasu, desorekarekin onartutako aurrekontu likidazioarena, eta uneko ekitaldian edo hurrengo ekitaldietan berriro oreka lortu arte aurreikusten diren diru sarrera eta gastuen proiektzioa, gehienez ere hiru urtekoa.

Aurrekontuko proiektzioetan, kasuan kasu, inbertsio aurreikuspenak eta beraien finantzaketarako proposamena sartu beharko dira.

Aurreko informazioa bateratu egingo da eta banakako xehakapena agertuko da adierazita, integratuta dauden menpeko entitateak eta dagozkien bateratze egokitzapenak gehitu direla egiaztatzeko.

Hurrengo artikulua 2. atalean aipatzen den egoera zehatza dagoelako, Udaltzako menpeko erakundeek likidazio bateratua egin gabe dagoela plana egin eta onartu izan balu, helburua bete ez den urteko likidazio bateratuari buruzko informazioa kenduko litzateke.

d) Aurrekontuko diru sarreraren eta gastuen aurreikuspenetan planaren indarraldiko urte bakoitzean egin den doikuntza bakoitzaren azalpena, aurrekontuko informazioa Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Sistemaren ezarritako irizpideetara egokitzeko, hala egin behar denean.

e) Diru sarreraren eta gastuen aurreikuspenetan egon diren urtearteko aldaketak azaltzen dituen txostena, ekitaldi bakoitzean hartu beharreko neurri zehatzak eta egin beharreko ekintza zehatzak adierazita, bai eta horiek guztiek ekitaldian bertan eta plana amaitu bitarteko beste ekitaldietan izango dituzten ondorio ekonomikoak ere.

f) Toki erakundeak aurreko informazioa osatu ahal izango du bere iritziz berriz oreka lortzen lagundu ahal izango duen garrantzizko beste informazio batekin.

1. MENPEKO ENTITATEEN ZERRENDA:

ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA S.A.

Udal egonkortasunaren kalkulutik kanpo dago, merkatuko sozietateak direlako (hau da, zati handi batean merkatuko diru sarrerekin finantzatuta daudelako).

2. AURREKONTU EGONKORTASUNAREKIN LOTUTAKO HELBURUA BETETZEN EZ DELA DIOEN TXOSTENA



AURREKONTUAREN EGONKORTASUNAREN HELBURUA EZ DELA BETETZEN DIOEN KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA		
1463/2007 ED ak 16.2 artikuluan dioenaren arabera egindako Txostena		
Txostena egitea eragin duen espedientea	<input type="checkbox"/> Aurrekontua onartzea <input type="checkbox"/> Aurrekontua aldatzea <input checked="" type="checkbox"/> Aurrekontuaren likidazioa	
		EXP:
Sarrera Aurrekontua		
1	1.Kapitulua	435.525,09
2	2.Kapitulua	34.604,32
3	3.Kapitulua	316.282,91
4	4.Kapitulua	859.779,99
5	5.Kapitulua	7.363,62
6	6.Kapitulua	
7	7.Kapitulua	568.855,50
8	Sarrera ez finantzarioak guztira	2.222.411,43
10	Doikuntzak positiboak (IGAren eskuliburuaren arabera)	
11	Doitutako Sarrera ez finantzarioak guztira	2.222.411,43
Gastu Aurrekontua		
12	1.Kapitulua	348.167,73
13	2.Kapitulua	831.168,85
14	3.Kapitulua	7.491,94
15	4.Kapitulua	165.615,83
16	6.Kapitulua	1.352.161,24
17	7.Kapitulua	18.841,93
18	Gastu ez finantzarioak guztira	2.723.447,52
20	Doikuntza negatiboak (IGAren eskuliburuaren arabera)	
22	Doitutako gastu ez finantzarioak guztira	2.723.447,52
Superabit / Defizit ez finantzarioa		
23	Superabit (+) / defizit (-) ez finantzarioa (11 - 22)	-501.036,09
<input type="checkbox"/>	Helburua betetzen da (23. kuadroko kopurua zero edo handiagoa bada)	
<input checked="" type="checkbox"/>	Helburua ez da betetzen, aurrekontuaren hainbat urtetarako egoerarik gabe (23. kuadroko kopurua n	

Aurrekontu egonkortasunari buruzko araudia ez betetzea, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak eta Toki Entitateetan aplikatzeko asmoarekin Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen 1463/2007 Errege Dekretuak aurreikusten dituzten terminoetan.

2011ko udal aurrekontuaren likidazioa dela eta egin den analisiaren emaitzen arabera, udalak **501.036,09 euroko defizit ez-finantzarioa du**. Horrek esan nahi du, ehunekoetan, %22,5eko defizita duela. (Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalaren Erregimen Ekonomiko, Finantzario eta Fiskalaren azpibatzen, toki erakundearen 2010eko likidazioekin lotuta, %5,53ko portzentajea ezarri zuen plangintza ekonomiko eta finantzarioak aurkezteko obligaziotik kanpo geratzeko –salbuespen moduan– Toki Erakundeek gehienez izan lezaketen defizit ez finantzario gisa).

Aurrekoarekin bat etorriz, eta esandako Erregelamenduan ezarritakoarekin ados, Aramaioko Udalak Plan Ekonomiko eta Finantzario bat onartu behar du, desoreka dagoela agerian jartzen den urtean hasi eta gehienez ere 3 urtetan berriz oreka lortzeko helburuarekin. Plan horretan, gutxienez, aipatutako Erregelamenduaren 20. artikuluan adierazten den informazioa eta dokumentazioa sartu beharko dira. Plana Udalbatzaren osoko bilkuran aurkeztuko da bere onarpenerako (Udalbatzak gehienez hiru hilabete izango ditu Plana onartzeko, toki erakundearen aurrekontuaren likidazioa onartzen den egunetik hasita). Likidazio espedientea (udalak defizit ez finantzarioa duela ateratzen da hortik) eta onartutako plan ekonomiko eta finantzarioa Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazio eta Lurralde Oreka sailera



ARAMAIOKO UDALA
ARABA

bidaliko da Udalbatzak onarpena eman eta ondorengo 15 egun balduneko epean, sail horri baitagokio finantzen zaintza egitea.

3. DESOREKAREKIN ONARTUTAKO AURREKONTUKO LIKIDAZIOAREN DIRU SARREREN ETA GASTUEN GAINEKO INFORMAZIOA, KAPITULUKA, ETA OREKA BERRIZ LORTU ARTE AURREKONTUAN JASOTZEN DIREN PROIEKZIOAK.

SARRERAK	OINARRIZKO EKITALDIA	1.EKITALDIA		2.EKITALDIA		3.EKITALDIA
KOPURUAK KAPITULUKA	2011KO LIKIDAZIOA	2012ko AURREKONTUA	2013 2012	2013KO AURREKONTUA	2014 2013	2014KO AURREKONTUA
SARREREN KAPITULUAK	Eskubide garbiak	Aurreikuspenak	%aldak.	Aurreikuspenak	%var	Aurreikuspenak
1. Zuzeneko zergak	462.898,87	459.402,05	3,00%	473.184,11	14,25%	540.619,95
2. Zeharkako zergak	40.248,08	45.500,00	7,69%	49.000,00	1,73%	49.848,00
3. Tasak eta bestelako zergak	326.761,19	339.409,90	3,60%	351.612,30	1,96%	358.493,17
4. Transferentzia arruntak	859.779,99	732.895,66	-5,27%	694.297,26	-5,67%	654.930,53
5. Ondare sarrerak	7.363,62	57.637,89	179,96%	16.136,120	-24,15%	122.396,03
6. Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hir	0,00	0,00		0,00		0,00
7. Kapital transferentziak	568.855,50	38.1627,67	-15,35%	323.058,36	-83,70%	52.653,55
8. Finantza Aktiboak	0,00	1577.152,97		0,00		0,00
9. Finantza Pasiboak	445.750,15	293.83129		0,00		0,00
SARRERAK GUZTIRA	2.711.657,40	3.887.457,43		2.052.513,23		1.778.941,23
GASTUAK	2011KO LIKIDAZIOA	2012ko AURREKONTUA	2013 2012	2013KO AURREKONTUA	2014 2013	2014KO AURREKONTUA
GASTUEN KAPITULUAK	Eskubide garbiak	Aurreikuspenak	%aldak.	Aurreikuspenak	%var	Aurreikuspenak
1. Pertsonal gastuak	348.167,73	424.287,51	-8,87%	386.644,12	4,27%	403.164,26
2. Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	831.168,85	920.412,59	-7,92%	847.497,85	-0,18%	845.983,50
3. Finantza gastuak	7.491,94	26.100,00	9,66%	28.620,00	6,78%	30.560,40
4. Transferentzia arruntak	165.615,83	200.476,49	-12,52%	175.373,78	6,49%	186.757,20
6. Inbertsio errealak	1.352.161,24	2.210.338,91	-78,07%	484.711,33	-63,60%	176.447,94
7. Kapital transferentziak	18.841,93	15.841,93	-12,62%	13.841,93	14,45%	15.841,93
8. Finantza Aktiboak	0,00	0,00				
9. Finantza Pasiboak	20.946,21	90.000,00	28,69%	115.824,22	3,77%	120.186,00
TOTAL GASTOS	2.744.393,73	3.887.457,43		2.052.513,23		1.778.941,23
DIFERENTZIA			0,00	0,00		0,00
MAGNITUDE AGREGATUAK	2011	2012		2013		2014
Sarrera arruntak (1)	1.697.051,75	1.634.845,50		1.729.454,87		1.726.287,68
Gastu arrunt ez finantzarioak (2)	1.344.952,41	1.492.788,11		1.409.515,75		1.435.904,96
Aurrezki gordina (3)=(1)-(2)	352.099,34	142.057,39		319.939,12		290.382,72
Karga finantzarioak (4)	28.438,15	116.100,00		144.444,22		150.746,40
Urteroko teorikoa		116.224,11				
Aurrezki garbia (5)=(3)-(4)	323.661,19	25.833,28		175.494,90		139.636,32
Sarrera ez finantzarioak (6)	2.265.907,25	2.016.473,17		2.052.513,23		1.778.941,23
Gastu ez finantzarioak (7)	2.723.447,52	3.797.457,43		1.936.689,01		1.658.755,23
Kutxaren irizpidetako doikuntza	-43.495,82					
Finantziario behar/gaitasun (8)=(6)-(7)	-50.103,60	-1.780.984,26		115.824,22		120.186,00
Aktibo finantzarioen aldakuntza (9)	0,00	-1.577.152,97		0,00		0,00
Pasibo finantzarioen aldakuntza (10)	424.803,94	203.831,29		-115.824,22		-120.186,00
Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza						
(11)=(8)-(9)+(10)	-76.232,15	0,00		0,00		0,00
Diruzaintzako gerakina	2.346.039					
RTFA-gerakin lotua	905.568					
RTGG-gastu orokorretarako gerakina	1.440.470					
RATIOAK						
Aurrezki gordina	20,75%	8,69%		18,50%		16,82%
Aurrezki garbia	19,07%	1,58%		10,15%		8,09%
Zorpetze maila	1,68%	7,10%		8,35%		8,73%
Zorpetzearen margina	91,92%	18,27%		54,85%		48,09%
Funtzionamenduko gastuak	79,25%	91,31%		81,50%		83,18%
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	84,88%	0,00%		0,00%		0,00%



2012		2013		2014	
INBERTSIOAK	FINANTZAK ETA	INBERTSIOAK	FINANTZAKE TA	INBERTSIOAK	FINANTZAKE TA
Inbentarioa 39.000 €	Udalaren baliabideak	Udaleko Obra txikiak 5.000 €	Udalaren baliabideak	Izpizti mendia landatzea 25.000 €	Udalaren baliabideak
Durakogain- Ganborralde-Gatxiko mendien desbrozea 10.000 €	Udalaren baliabideak	Muru auzoko obra 384.493,42 €	AFaren dirulaguntza + Udalaren baliabideak	AFA Obra Txikiak 35.000 €	AFaren dirulaguntza
Obras Txikiak AFA 35.000 €	AFaren dirulaguntza	Obras Txikiak AFA 35.000 €	AFaren dirulaguntza	AFA Auzolanak 31.000 €	AFaren dirulaguntza
Auzolanak AFA 31.000 €	AFaren dirulaguntza	Auzolanak AFA 31.000€	AFaren dirulaguntza	Bideak konpondu 20.700 €	Udalaren baliabideak
Bideak konpondu 19.000€	Udalaren baliabideak	Bideak konpondu 5.700€	Udalaren baliabideak	Ibarrako Kaleak konpondu 20.000 €	Udalaren baliabideak
Ibarrako Kaleak konpondu 5.000 €	Udalaren baliabideak	Ibarrako Kaleak konpondu 5.000 €	Udalaren baliabideak	Azkoagako lursaila 8.628,74 €	Udalaren baliabideak
PERI-a 44.897,95 €	AFaren dirulaguntza	Bestelakoak: 18.517,91€	Udalaren baliabideak	Bestelakoak: 36.119,20 €	Udalaren baliabideak
Etxaguengo azpiegiturak 1.378.997,99 €	AFaren dirulaguntza + Mailegua				
Matxinkaleko zubia 72.000 €	Udalaren baliabideak				
C.I.I. 2.fasea 214.004,60 €	E.J.ren dirulaguntza + Udalaren baliabideak				
Azkoagako saneamendua 262.821,44 €	AFaren dirulaguntza + Udalaren baliabideak				
Bestelakoak: 98.616,93 €	Udalaren baliabideak				
GUZTIRA: 2.210.339,91€		GUZTIRA: 484.711,33€		GUZTIRA: 176.447,94 €	

Inbertsio aurreikuspenak eta finantzaketarako proposamena:

4. EGINDAKO DOIKUNTZA BAKOITZAREN AZALPENA

Kutxaren irizpidea:

43.495,82 euroko doikuntza egin da (kentzea); izan ere, kutxaren irizpidearen arabera diru sarrerren egoera ataleko I, II eta III kapituluetan bildutako eskubide errealak hartzen dira kontuan, onartutako eskubide garbiak hartu beharrean.

5. DIRU SARREREN ETA GASTUEN AURREIKUSPENETAN EGON DIREN URTEARTEKO ALDAKETAK AZALTZEN DITUEN TXOSTENA

GASTUEN EGOERA

- 2. Kapituluaren murrizketa progresiboa 2014. ekitaldira bitartean, kontratazioen optimizazioaren ondorioz eta gastu arruntei eusteko egingo den ahaleginaren ondorioz.
- 3. Kapitulu handitzea, zor biziak eragindako interesen sortzapena handituko delako.



- 4. Kapituluaren murrizketa, 2013an, talde politikoei eta diru laguntzei esleitutako partidak kontrolatuko direlako.
- 6. Kapituluaren murrizketa progresiboa, inbertsioak apurka-apurka murriztuko direlako.
- 9. Kapitulu handitzea, maileguren amortizazio kuotak handituko direlako.

1. kap. - Pertsonal gastuak: Langileen soldatak igotzea proposatzen da, KPIaren eguneraketan oinarrituta. Igoera progresiboki egingo da 2013 eta 2014 urteetan zehar, hurrenez hurren. 2012an azpimarratzekoa da iraupen luzeko laneko bajei dagokien zenbateko handia, kapituluan izaten ari den eragin nabarmena.

2.Kap.- Ondasun Arruntan eta Zerbitzuen gastuak: Kapitulu hau progresiboki murriztea proposatzen da. 2013an %8ko jaitsiera proposatzen da kapitulu honetan. Jaitsiera hori, nagusiki, gastu korrontearen kontrolean oinarrituko da, gastu horren kontrol handiagoa egingo baita. Ahalegin handia kontratazioei dagokienez, beraien baldintza ekonomikoak hobetzeko asmoarekin. 2014an ia-ia aurreko ekitaldiko zifrei eutsiko zaie.

3.Kap.- Finantza gastuak: Kapitulu honen igoera egongo da, batez ere dagoen zor biziak eragindako interesen sortzapena handituko delako.

4.Kap.- Transferentzia arruntak: Kapitulu honetan %13ko jaitsiera proposatzen da 2013rako. Emaiza hori partida guztien azterketa zorrotzaren ondorioa da, batez ere honako hauena: talde politikoen esleipena, entitate batzuei ematen zaizkien diru laguntzak. Hitz batez esanda, kontuan hartzen da Udalaren diru iturri nagusitik heltzen zaion diruaren jaitsiera, FOFEL bidetik heltzen zaion diruaren jaitsiera, alegia. Jaitsiera hori bera ezarri nahi da Udalak ematen dituen laguntzetan.

6. Kap.- Inbertsio errealak: Kapitulu honi dagokionez, esango dugu inbertsioen maila poliki-poliki jaisten ari dela. Hori horrela, eta logikoa den moduan, kapitulu alderdi honekin zuzenean lotuta dago.

7.kap.- Kapital transferentziak: Zenbatekoa ia-ia berdina izango 3 urtetan, OLETAko Administrazio Batzarrekin akordio bat dagoelako eta akordio hori 2015era arte indarrean egongo delako, orduan desagertuko baita.

9. kap.- Pasibo finantzarioak: Kapitulu honen igoera progresiboa, gero eta mailegua handiagoa izango dugulako.

DIRU SARREREN EGOERA

- Zerga zuzenekin, zeharkakoekin eta udal tasekin bildutakoa gero eta gehiago izango da, KPIaren igoerak gora egiten duenaren arabera eta iruzurrak antzemateko ahalegin handiagoak egingo direlako. Igoera nabarmena 2014an, Ondasun Higiezinaren katastroko balioa berrikusi egingo delako.
- Ondarearen diru sarrerek gora egingo dute basoen ustiapenetik lortutako diru sarreraren ondorioz.
- Kapital transferentziek dakartzaten diru sarreraren jaitsiera progresiboa, egin beharreko inbertsioen mailak behera egingo duelako.

1.kap- Zerga zuzenak: %3ko igoera tasa proposatzen da, 2013an zehar KPIa eguneratuko delako. 2014an, katastroan aurreikusten den eguneraketa dela eta, aplikatzen den igoera tasa %17,25 igoko da 2012ko oinarriarekiko. Eguneraketa hori ezin da egin 2013an, horretarako ezinbestekoa delako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra onartuta egotea. Gehien eragiten duten zergak hauek dira nagusiki: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak (Hirilurren Zerga eta Landalurren Zerga).

2.kap- Zeharkako zergak: %7,69ko igoera proposatzen da 2013rako, iruzurrak antzemateko ahalegin handiagoak egingo direlako. 2014an, aurreko urteko (2013) tasa bera planteatzen da, igoera txiki-txiki batekin baino ez. Gure ustez, kontrol horrek bere emaitzak izango ditu laster udal aguazilaren lanpostu berria sortuko baita.

3.Kap.- Tasak eta beste diru sarrera batzuk: Kapitulu honen igoera progresiboa proposatzen da, KPIaren eguneraketan oinarrituta. Igoera 2013an eta 2014an gertatuko da, eta aurreikusten den moduan, %3,6koa eta %1,96koa izango da, hurrenez hurren.



4.Kap.- Transferentzia arruntak: Kapitulu honetan finantzaketa iturri nagusitik (FOFEL) datorren dirua gutxitzea proposatzen da. 2013. eta 2014. urteetarako %6 inguruko jeitsiera aurreikusten da urte bakoitzean.

5.Kap.- Ondarearen diru sarrerak: Atal honetan gorabehera handia dago 2013an eta 2014an, batez ere basoen ustiapenaren ondorioz. 2013an Erabilera Publikoko 33 zenbakidun mendian baso mozketara egingo da eta horrek diru bat emango digula espero da. Mendia Izpizteko Arriagan dago eta 14,21 Ha ditu. Aldundiko Mendi Zerbitzuko teknikariek egindako balorazioaren arabera 142.100 €-ko balioa du. 2014an zehar Erabilera Publikoko 286 zenbakidun mendian baso mozketara egitea aurreikusita dago eta horrek diru bat ekarriko digu. Mendia Izpizten dago eta 10,28 Ha ditu. Aldundiko Mendi Zerbitzuko teknikariek egindako balorazioaren arabera 102.800€-ko balioa da. Era berean, 25.000 €-ko gastua gehitu da, aurretik botatutako basoan berriro zuhaitzak sartzeko lanei dagokiena.

7.kap.- Kapital transferentziak: Kapitulu honi dagokionez, adierazi behar da gorabehera nagusiak egin beharreko inbertsioen jaitzieragatik izan direla. Kontuan hartuko dugu 2012an Azkoagako obrari dagokion diru laguntza sartuta dagoela eta 2013an Muruko obrari dagokiona. 2014an ez dago obrarik aurreikusita, mantentze lanak ezik, esaterako obra txikiak, auzolanak, bideak konpontzekoak eta kaleak konpontzekoak. Aldundiak obra txiki horietarako emango duen diru laguntza baino ez da jasotzen.

9.kap.- Pasibo finantzarioak: Kapitulu honetan azpimarratzekoa da 2012ko urtean agertzen den zenbatekoa. Zenbateko hori egiteke dauden obrak sartu ondoren aurrekontuan egindako aldaketei eta gehitzen den maileguaren zatiari dagokie. Datozen urteetan ez da ezer gehituko kapitulu honetan, Muruko obra fondo propioekin finantzatuko baita.

Hirugarrena.- Informazio xedeetarako, onartutako Plan Ekonomiko Finantzarioa ALHAOn argitaratuko da. Era berean, Planaren ale bat publikoaren eskura egongo da, onartzen denetik iraunaldia bukatu arte.

Laugarrena.- Arabako Foru Aldundiari erabaki honen berri emango zaio, Planaren ale bat bidaliz.

3. 3/2012 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Ogasuna Batzordeak ondorengo irizpena igorri du puntu honen inguruan:

Aramaioko Udalak, Azkoaga auzoko beharren jakitun, guneretan saneamendua eraberritzeko lanak egiteko asmoa dauka, Foru Planeko diru-laguntzen babespean. Foru Aldundiak diru-laguntza ematea ebatzi duen arren, lanen kostuaren zati bat Udalak berak hartu beharko luke bere gain. Lanak 2012ko aurrekontuan proiektatu ez zirenez, kreditu aldaketa egiteko beharra dago, lanak egingo badira. Gaineratu behar da, diru-laguntzaren baldintza dela lanak aurten gauzatu eta bukatzea. Lanen aurrekontua guztira 262.821,44 eurokoa da.

Horrez gain, emakumeen diagnostikoa egiteko 2012ko aurrekontuan aurreikusitako gastua murriztu da. Jaurlaritzak onartutako diru-laguntza aurreikusitakoa baino handiagoa izan bada ere, lotura-poltsan ez dago kreditu nahikorik gastuari aurre egiteko. Beraz, honetan ere kreditu aldaketa egiteko beharra dago.

Ekonomia arloko teknikariaren txostena ikusita.

Kontu-hartzailearen txostena ikusita.

Ogasuna Batzordeak ondorengo erabaki-proposamena helarazten dio Udalbatzari:

Lehenengoa.- 2012 Udal Aurrekontuko 3/2012 Kreditu aldaketa onartzea -kreditu gehigarria-,



ondorengo zehaztapenekin:

KREDITU GEHIGARRIAK

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
09.313.227.070	Emakumeen diagnostikoa	2.000,00	5.788,00	7.788,00
06.441.601.001	Azkoagako saneamendua	0,00	262.821,44	262.821,44
GUZTIRA			268.609,44 EURO	

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak	Kontzeptua	Sarrera handiagoak /gastuetako bajak	Azalpena
01.91200	VITAL KUTXAKO MAILEGUA	56.529,21	MAILEGUA
06.72001	AFA-AZKOAGAKO SANEAMENDUA	206.292,23	DIRULAGUNTZA AFA
09.41001	EJ-DIAGNOSTIKOA	4.341,00	DIRULAGUNTZA E.J.
07.313.683.040	EGUNEKO ZENTRUAN INBERTSIOAK	1.447,00	PARTIDARI BAJA
GUZTIRA			268.609,44 EURO

Bigarrena.- Espedientea hamabost egun baliodunez izango da jendaurrean, ALHAOn iragarkia argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari. Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da kreditu gehigarriaren espedientea.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, Ogasuna Batzordeak proposatutakoarekin bat etorritik, ondorengo ERABAKI DU bertaraturako zinegotzi guztien adostasunarekin (6 aldeko boto):

Lehenengoa.- 2012 Udal Aurrekontuko 3/2012 Kreditu aldaketa onartzea -kreditu gehigarria-, ondorengo zehaztapenekin:

KREDITU GEHIGARRIAK

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
09.313.227.070	Emakumeen diagnostikoa	2.000,00	5.788,00	7.788,00
06.441.601.001	Azkoagako saneamendua	0,00	262.821,44	262.821,44
GUZTIRA		268.609,44 EURO		



KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Kontzeptua	Sarrera handiagoak /gastuetako bajak	Azalpena
01.91200	VITAL KUTXAKO MAILEGUA	56.529,21	MAILEGUA
06.72001	AFA-AZKOAGAKO SANEAMENDUA	206.292,23	DIRULA GUNTZA AFA
09.41001	EJ-DIAGNOSTIKOA	4.341,00	DIRULA GUNTZA E.J.
07.313.68 3.040	EGUNEKO ZENTRUAN INBERTSIOAK	1.447,00	PARTIDARI BAJA
GUZTIRA		268.609,44 EURO	

Bigarrena.- Espedientea hamabost egun baliodunetz izango da jendaurrean, ALHAOn iragarkia argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari. Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da kreditu gehigarriaren espedientea.

4. AZKOAGAKO SANEAMENDU-SAREA ERABERRITZEKO LANEN FINANTZAKETA: VITAL KUTXAK EMANDAKO MAILEGUA ERABILTZEA ONARTZEA ETA FORU ALDUNDIARI BAIMENA ESKATZEA, BIDEZKOA BADA.

Ogasuna Batzordeak ondorengo irizpena igorri du puntu honen inguruan:

AURREKARIAK

2009ko irailaren 24an eginiko bilkuran, Aramaioko Udalbatzak 990.000,00 euroko zorpetzea baimendu zuen, hurrengo lanak finantzatzeko: Bentamotz; Untzilla; Jolas Parkea; Argiteria; Etxaguen; Iturrizuri eta Matadero.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak (udalaren gaineko tutoretza finantzarioa dagokiona) maileguaren baldintzak onartu zituen.

Aurrekoa gauzatuz, Aramaioko Udalak eta Vital Kutxak (egun Kutxabank, S.A.) 990.000,00 euroko mailegua itundu zuten, 10 urtetan amortizatzeke eta 2 urteko gabeziarekin (Poliza zkia.: 909.172522.5).

Maileguko xedean sartu ez bazen ere, Aramaioko Udalak, Azkoaga auzoko beharren jakitun, gune honetan saneamendu-sarea eraberritzeko lanak egiteko asmoa dauka, Foru Planeko diru-laguntzen babespean. Foru Aldundiak diru-laguntza ematea ebatzi duen arren, lanen kostuaren zati bat Udalak berak hartu beharko luke bere gain. Lanak aurrekontuan proiektatu ez zirenez, Udalak mailegura jotzeko beharrean da, hurrengo finantzazio-aurreikuspenaren arabera:



Obraren kostu osoa

Kontrata bidezko gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne): 249.605,01 €
Proiektua idazteko ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €
Obraren zuzendaritzako ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €

Obraren finantzaketan erabili beharreko baliabideak

Foru Planaren bidez emandako diru-laguntza: 206.292,23 €
Vital Kutxako mailegua: 56.529,21 €

Kontuan hartuz, bere garaian Udalbatzak onartu eta Aldundiak onetsi zuen zorpetzea handitzen ez dela.

Kontuan hartuz, Azkoagako obra finantzatzeko mailegutik hartu beharreko kopuruak ez duela Vital Kutxak emandako maileguaren muga -990.000,00 €- gaindiaraziko (maileguak finantzatutako eta finantzatu beharreko gastu guztiak kontuan hartuz).

Ikusirik, Vital Kutxak igorritako dokumentua, 2012ko maiatzaren 23koa, Azkoagako obra finantzatzeko mailegutik 57.000 euro hartzea ontzat ematen duena.

Ogasuna Batzordeak hurrengo erabaki-proposamena aurkezten dio Udalbatzari:

ERABAKI PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Azkoaga auzoko saneamendu-sarea berriztatzeko lanak finantzatzeko, Udalak Vital Kutxarekin duen mailegua (poliza zkia. QP9373102) erabiltzea onartzea, ondorengo finantzazio-plana onartuz:

Obraren kostu osoa

Kontrata bidezko gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne): 249.605,01 €
Proiektua idazteko ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €
Obraren zuzendaritzako ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €

Obraren finantzaketan erabili beharreko baliabideak

Foru Planaren bidez emandako diru-laguntza: 206.292,23 €
Vital Kutxako mailegua: 56.529,21 €

Erabaki hau ondorengo baldintzen eraginpean hartzen da:

a)Maileguak finantzatu beharreko gastuek, guztira,ezin izango dute baimendutako zorpetzea gainditu; hau da 990.000,00 euro.

b)Azkoagako saneamendu-sarea berriztatzeko lanak finantzatzeko mailegutik hartu ahal izango den gehienezko kopurua 57.000,00 eurokoa izango da.

c)Arabako Foru Aldundiak operazio hau onartu beharko du, udalaren gaineko tutoretza finantzieroa gauzatuz

Bigarrena.- AFARI erabaki honen berri ematea eta operazioa baimentzeko eskaera egitea.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udalbatzak bozketari ekin dio eta Ogasuna Batzordeak egindako irizpenarekin bat etorritik, ondorengoa ERABAKI DU bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (6 aldeko boto):

Lehenengoa.- Azkoaga auzoko saneamendu-sarea berriztatzeko lanak finantzatzeko, Udalak Vital Kutxarekin duen mailegua (poliza zkia. QP9373102) erabiltzea onartzea, ondorengo finantzazio-plana onartuz:



Obraren kostu osoa

Kontrata bidezko gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne): 249.605,01 €
Proiektua idazteko ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €
Obraren zuzendaritzako ordainsari teknikoak (BEZ barne): 6.608,22 €

Obraren finantzaketan erabili beharreko baliabideak

Foru Planaren bidez emandako diru-laguntza: 206.292,23 €
Vital Kutzako mailegua: 56.529,21 €

Erabaki hau ondorengo baldintzen eraginpean hartzen da:

- a) Maileguak finantzatu beharreko gastuek, guztira, ezin izango dute baimendutako zorpetzea gainditu; hau da 990.000,00 euro.
- b) Azkoagako saneamendu-sarea berrizatzeko lanak finantzatzeko mailegutik hartu ahal izango den gehieneko kopurua 57.000,00 eurokoa izango da.
- c) Arabako Foru Aldundiak operazio hau onartu beharko du, udalaren gaineko tutoretza finantzieroa gauzatuz

Bigarrena.- AFari erabaki honen berri ematea eta operazioa baimentzeko eskaera egitea.

EUSKARA ETA HEZKUNTZA

5. 2012KO ERABILERA PLANA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ondoko irizpena igorri du:

Aramaioko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko Erabilera Plana diseinatu du 2012rako.

Erabilera Planaren helburua hau da: herri administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara planon helburu estrategikoen helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

- 1. Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.*
- 2. Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.*
- 3. Hala dagokionean, euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.*

Hori dela eta, EUSKARA ETA HEZKUNTZA Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

- Aramaioko Udalak diseinatu duen 2012ko Erabilera Planari onarpena ematea, behin Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak ere bere oniritzia eman ondoren.*
- Erabilera plana beteta dago Irati aplikazioan, interneten.*

Batzordeburuak, Planaren ildo nagusiak azaldu ondoren, gaineratu du Eusko Jaurlaritzak Plana ofizialki onetsi ez baduela ere, telefonoz baietza aurreratu diola Udalari.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, Euskara eta Hezkuntza batzordeak proposatutakoarekin bat etorritzat ondorengo ERABAKI DU, bertaratutako



zinegotzi guztien adostasunarekin (6 aldeko boto):

Lehenengoa.- Aramaioko Udalak diseinatu duen 2012ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eman behar duen oniritziaren baldintzapean.

KULTURA

6. KULTUR ETXeko KUDEAKETAREN KONTRATUA LUZATZEA ETA PREZIOAREN BERRIKUSKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

ZIOEN AZALPENA

Aramaioko Udalbatzak, 2010eko martxoaren 17an egindako bilkuran, udal Kultur Etxea kudeatzeko zerbitzuaren kontratua esleitu zuen behin-betiko, OSTADAR, S.C. enpresari esleitu ere. Kontratua urte batez zen, beste 3 urtez luzatzeko aukera jasoz. Kontratuaren prezioa urte bakoitzeko 37.084,15 eurotan finkatu zen.

Kontratua 2010eko martxoaren 30ean formalizatu zen eta, bertan jasotakoaren arabera, kontratua luzatzeko *abiapuntua prestazioaren lehen eguna izango da, hau da, kontratua sinatu eta ondorengo lehen laneguna* (martxoak 31) errebisatzea eta iraupena beste urtebetez luzatzea proposatzen zaio Udalbatzari.

2011ko martxoaren 30ean, Udalbatzak erabaki zuen Kontratua beste urte batez luzatzea (hau da, 2012ko martxoaren 30a arte).

Kontuan hartuz kultura teknikaria eta batzordeburua OSTADAR enpresak eginiko kudeaketarekin ados eta kexarik ez dagoela azaldu dutela, kontratua beste urte batez luzatzea proposatzen da, hurrengoan oinarrituz:

- Kontratuaren Laugarren Klausularen arabera, hamabi hilabete igarotakoan, kontratuaren prezioa KPIak ehunekotan izandako aldaketaren arabera berrikusiko da (betiere kontratua luzatzea erabakiko balitz).
- Sektore Publikoko kontratuen 30/2007 Legean eta 1098/2001 Araudian xedatutakoaren arabera, aplikatu beharreko KPIa kontratua esleitu zen dataren arabera kalkulatu beharko da (esleipena eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 3 hilabeteren barruan egin zelalo), beraz, martxoaren 17a izango da erreferentzia.
- Horrez gain, aipatu legediaren arabera, prezioaren igoerak ezin izango du gainditu KPIaren aldaketaren %85a.

Beraz, berriskuketa KPI-aren %85an finkatuko da eta gaurkotzea, kontratuaren esleipen egunetik prezioa errebisatzen den egunerarteko izango da: 2010eko martxoaren 17tik 2012ko martxoaren 30a arte.

- 2012ko aurrekontuan zerbitzu hau mantentzeko partida egokia dago, 43.700,00 € (partida zkia.: 227042.451.04)
- Ikusirik INE Estatistika Institutoak argitaratutako indizeen arabera, kontuan hartu beharreko aldiko KPI-a % 5,6 finkatzen duela (2010 martxoa – 2012ko martxoa bitartean) eta horren % 85a %4,76 izanik: Batzordeak proposatzen du + 4,76 % -ko igoera aplikatzea esleipen prezioari. Horrenbestez, 2012-2013 epealdiko kontratuaren prezioa hurrengoa izango litzateke:



31.969,10 € x 1,0476 = **33.490,82 €** (39.519,67 € BEZ barne)

Gauzak honela, Kultura Batzordeak ondorengo proposamena egiten dio Udalbatzari, honek erabaki dezan:

PROPOSAMENA

Lehena.- Aramaioko Kultur Etxea kudeatzeko kontratua, 2010eko martxoaren 17an OSTADAR, S.C.- enpresari esleitu zitzaiona, beste urte batez luzatzea; hau da, 2013ko martxoaren 30a arte.

Bigarrena.- 2012-2013 epealdirako kontratuaren berrikusketa onartzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Aplikatu beharreko KPlaren aldaketa + %4,76-an finkatzea, esleipen prezioarekiko.
- 2012-2013 epealdirako kontratuaren prezioa 33.490,82 eurotan finkatzea (39.517,67 € BEZ barne).
- Prezioaren igoera atzera-eraginez aplikatuko da. Hau da, 2012ko martxoaren 30tik 2013ko martxoaren 31a bitartean.

Hirugarrena.- 39.519,67 euroko gastua onartzea.

Laugarrena.- Erabaki hau OSTADAR, S.C.-ri jakinaraztea eta kontratuaren luzapenaren agiria sinatzeko dei egitea.

Bosgarrena.- Alkatea ahalmentzea kontratuaren luzapena sinatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak sinatu ditzan.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udalbatzak bozketari ekin dio eta Kultura Batzordeak egindako irizpenarekin bat etorritz, ondorengo ERABAKI DU bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (6 aldeko boto):

Lehena.- Aramaioko Kultur Etxea kudeatzeko kontratua, 2010eko martxoaren 17an OSTADAR, S.C.- enpresari esleitu zitzaiona, beste urte batez luzatzea; hau da, 2013ko martxoaren 30a arte.

Bigarrena.- 2012-2013 epealdirako kontratuaren berrikusketa onartzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Aplikatu beharreko KPlaren aldaketa + %4,76-an finkatzea, esleipen prezioarekiko.
- 2012-2013 epealdirako kontratuaren prezioa 33.490,82 eurotan finkatzea (39.517,67 € BEZ barne).
- Prezioaren igoera atzera-eraginez aplikatuko da. Hau da, 2012ko martxoaren 30tik 2013ko martxoaren 31a bitartean.

Hirugarrena.- 39.519,67 euroko gastua onartzea.

Laugarrena.- Erabaki hau OSTADAR, S.C.-ri jakinaraztea eta kontratuaren luzapenaren agiria sinatzeko dei egitea.

Bosgarrena.- Alkatea ahalmentzea kontratuaren luzapena sinatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak sinatu ditzan.



UDAL GOBERNUARI JARRAIPENA ETA KONTROLA

7. 49/12 – 63/12 ZENBAKIEN ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Gainontzeko korporazio-kideen jakinerako, Alkateak 49/12tik 63/12 zenbakira eman dituen Dekretuak banatu dira bilkura-deialdiarekin. Jarduneko alkateak horien berri eman du era laburrean eta korporazio kideren batek galdetzekorik duen galdetu du.

Inork ez duenez galderarik egin, hurrengo puntura igaro da.

8. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BATERAGUNE AUZIAREN EBAZPENARI BURUZKOA.

BILDU udal taldeko ordezkariak hurrengo mozioa aurkeztu du:

Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea aztertuko du Madrilan. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.

Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.

Ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik

Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:

Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, bozketari ekin zaio ondorengo emaitzarekin:

5 aldeko boto

Abstentzio 1 (EAJ/PNV Taldeko zinegotzia: ez du denborarik izan Taldearen baitan aztertzeko)

Beraz, Aramaioko Udalbatzak gehiengo absolutuz mozioa onartu du.

9. ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkateak galderak eta eskariak egiteko txanda eskaini die zinegotziei.



Nafarrate jaunak hitza hartu du hurrengo bi gauzak aipatzeko:

- 1.- Azken ogasuna batzordean ezin izan zenez egon, bilkuran jorratutako informazioa jasotzea eskatu du.

Alkateak esan dio ekonomia arlotik helaraziko zaiola.

- 2.- Udala zoriondu nahi izan du inauguratu berri den CII zentroagatik. Eraikina oso ondo dagoela eta egitasmo polit bat dela esan du.

Gainontzeko zinegotziek ez dute galdera edota eskaerarik azaldu.

Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 19:25ak direnean, jarduneko alkate andrearen sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.